

EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO KLAUSULEN AGIRIA, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA SOZietatearen ZINEMA UNITATEAREN BAITAN, ZINEMALDIETAN FILMAK HAUTATZEKO, EKOIZTEKO, TRATATZEKO ETA ARTXIBATZEKO, ETA HARK ANTOLATZEN DITUEN EMANALDIK KOORDINATZEN LAGUNTZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA, PUBLIZITATEA DUEN PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen helburua da VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA SA sozietatearen (aurrerantzean, VICTORIA EUGENIA) Zinema Unitatearen baitan, zinemaldietan filmak hautatzeko, ekoizteko, tratatzeko eta artxibatzeke, eta hark antolatzen dituen emanaldiak koordinatzen laguntzeko zerbitzua kontratatzea, agiri honetan eta baldintza teknikoaren agirian jasotakoaren arabera.

Zehazki, jarraian aipatuko diren jarduerak barne hartzen dira VICTORIA EUGENIAK zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko duen zerbitzuan:

- DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK antolatzen dituen eta antolatzen laguntzen duen Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astearen eta Giza Eskubideen Zinemaldian aurkeztu diren nazioarteko filmen lehen hautaketa ikusi eta baloratzea.
- Kopia prestatzeko zereginak, haiek hainbat ekitalditan emateko (fitxategi digitalekin lan egitea, formatuak bihurtzea, aretoetara egokitzea...). Era berean, aldaketa teknologikoak direla eta, film horietako askok Unitatearen barruan alde aurreko prestaketa-lana eskatzen dute, espazio bakoitzeko pertsonal teknikoak eman ahal izateko. Aurretiazko lan hori, hala badagokio, kontratistak egin beharko du.
- Nazioarteko ekoiztetxeekin eta banatzaileekin izapideak egitea, hautatutako materialen emanaldia negoziatzeko eta, hala badagokio, emanaldiaren nondik norakoak eta baldintzak negoziatzeko.
- Banatzaileek, ekoiztetxeek eta sortzaileek Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea eta Giza Eskubideen Zinemaldira bidalitako materialak eta VICTORIA EUGENIAren Zinema Unitatera bidalitako edozein material artxibatzea eta dokumentatzea.
- Donostiako Kultur Etxetan antolatzen diren zinema- eta bideo-emanaldiak koordinatzea eta antolatzea, Kultur Etxe bakoitzeko arduradunekin batera.
- Ekitaldiak ekoiztea eta bakoitzaren gauzatze-faseak kudeatzea, bai eta aurreko puntuan aipatutako ekitaldietara gonbidatutako pertsonen kudeaketaz arduratzea ere, betiere VICTORIA EUGENIAren Zinema Unitateko lan-taldeak ematen dituen jarraibideak kontuan hartuta.
- VICTORIA EUGENIAREN Zinema Unitatearen baitan, zinemaldietan filmak hautatu, ekoiztu, tratatu eta artxibatzearekin, eta hark antolatzen dituen emanaldiak koordinatzen laguntzarekin lotutako beste edozein.

2. ERAKUNDE KONTRATUGILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA SA sozietatea (VICTORIA EUGENIA aurrerantzean) da erakunde kontratugilea.

VICTORIA EUGENIAko gerentea da kontratazio-organoa.

3. ESLEIPEN PROZEDURA

Kontratua prozedura negoziatu bidez esleituko da, publizitatea barne hartuta.

Prozeduraren xedea da proposamen ekonomiko onuragarriena egiten duen enpresaburua hautatzea, parte hartzen duten lizitatzailleekin kasuan-kasuan negoziatu eta gero.

Negoiazio horretan, agiri honetako **13. klausulan** adierazitako alderdi ekonomikoak eta teknikoak aztertuko dira.

Hala ere, lizitatzailleek aurkezten duten azken eskaintza agiri honen **14. klausulan** eskaintzak baloratzeko irizpideen arabera baloratuko da.

4. ALDAERAK

Ez da aldaerarik onartzen.

5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA

Honako hauek izango dute kontratu izaera, esleipenaren ondoren egiten den kontratuaz gain: Klausula Ekonomiko Administrazioen Agiri hau, Baldintza Teknikoen Agiria eta esleipendunak aurkezten duen azken eskaintza.

Esleipendunak dokumentu horiek sinatu beharko ditu kontratua formalizatzeko egintzan, guztiak onartzen dituenaren froga gisa.

6. IRAUPENA

Kontratuaren iraupena urte batekoa izango da, formalizatu eta hurrengo egunetik hasita; urtean luzapen bat egin daiteke, erakunde kontratugileak bakarrik eskatzen badu. Zentzu horretan, kontratuak gehienez ere bi urteko iraupena edukiko du, luzapenak barne hartuta.

Luzapenaren jakinarazpena kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago egingo da gutxienez, eta derrigorrezkoa izango da kontratistarentzat.

7. LIZITAZIOAREN GEHIENEO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN GUTXI GORABEHERAKO BALIOA

Lizitazioaren urteko gehieneko aurrekontua 41.000 eurokoa da, Balio Erantsiaren Gaineko Zerga (BEZ) kanpo.

Lizitatzailleek kontu-sail independente batean adieraziko dute VICTORIA EUGENIAK jasan beharko duen BEZa.

Lizitatzailleek kopuru hori murriztu dezakete aurkezten duten proposamen ekonomikoan.

Nolanahi ere, eskaintzen den prezioan lanak egiteko beharrezko gastu guztiak barne hartuko dira, Agiri honetan eta Preskripzio Teknikoen Agirian aurreikusitako moduan. Ez da a posteriori onartuko aldez aurretik azken prezioan barne hartu ez diren kontzeptuengatik fakturaziorik.

Eskainitako prezioen barruan ulertuko dira zerbitzuek berezkoak dituzten kontzeptu guztiei dagozkienak eta zerbitzuak egiteko baliatutako langileekin lotutako gastu guztiak (besteak beste, soldadak eta Gizarte Segurantzak, oporrak eta aparteko ordainsariak, langileen bajak edo gaixotasunak direla-eta egiten diren ordezkapenak, istripu indibidualetarako aseguruak, etab.), bai eta zerga (BEZa kanpo, kontu sail independente batean adieraziko zaie lizitatzailleei), gainerako aseguru, lizentzia, baimen, garraio, joan-etorri eta bestelako gastu orokor guztiak ere.

Gainera, lizitatzailleek eskainitako prezioan barne hartuko dira enpresa kontratistak lanak egiteko beharrezkoak dituen bitarteko, tresna, ibilgailu, ekipo, lanabes, informatika-ekipo eta gailu guztiak.

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina (SPKLTB) onartzen duenaren 88. artikulua onorioetarako, **kontratuaren balio zenbatetsia, izan daitekeen luzapena bilduta, 82.000 eurokoa da (BEZa kanpo).**

Balio zenbatetsi hori SPKLTBaren 88.5 a) artikulua arabera kalkulatu da. Hau da, kontuan hartu da aurreko hamabi hilabeteetan balio beragatik esleitutako antzeko kontratuen benetako balioa, eta kontratuak irauten duen denbora guztiagatik zenbatu da, hau da, urtebete, gehi beste urte bat, luzapenik egon bada.

8. PREZIOA ORDAINTZEA

Hileroko ordainketak egingo dira, kontratistak kasuan-kasuan dagokion faktura aurkeztu eta gero.

Kontratistak VICTORIA EUGENIAri egindako zerbitzuengatik hileroko jasoko duen prezioa, urteko esleipenaren zenbatekoa zati 12 hileroko eginda lortzen dena izango da.

Kontratistak faktura luzatuko du hileroko, kasuan-kasuan dagokion hilabetea amaitu eta hurrengo hilabetearen lehenengo 15 egun naturalean. Erakunde kontratugileak zerbitzuei dagokien hila amaitu eta hurrengo 30 egunen barruan ordaindu beharko

du faktura; baldin eta faktura lehen adierazitako epean luzatu bada eta VICTORIA EUGENIAk aurretiaz onartzen badu.

9. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ez dagokio.

10. GAITASUN BALDINTZAK

VICTORIA EUGENIArekin kontratatu ahal izango dute jarduteko ahalmen osoa duten, kontratatzeke debekurik ez duten eta behar adinako kaudimen teknikoak edo profesionalak dutela frogatzen duten Espainiako zein atzerriko pertsona natural edo juridikoek.

Ezin izango dute lizitazioan esku hartu kontratuaren zehaztapen teknikoak edo prestaketa dokumentuak lantzen parte hartu duten enpresek, baldin eta parte hartze horrek lehia librerako murrizketak eragin baditzake edo gainerako lizitatzailerikiko tratu pribilegiatua ekar badezake.

Enpresa lizitatzailerik, halaber, kontratuen xede diren zerbitzuak gauzatzeko eska daitekeen gaikuntza profesionala edo enpresa-gaikuntza izan beharko dute.

Pertsona juridikoek kontratuaren esleipendun izateko aukera izango dute, baldin eta, kontratuko prestazioak haiei berez dagozkien helburu, xede edo jarduera esparrukoak direnean, haien estatutuen edo sorrerako arauen arabera.

Nolanahi ere, VICTORIA EUGENIArekin kontratatzeke ahalmena izango dute Europar Batasuneko estatuetakoen enpresa ez-espainiarrek, baldin eta ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera kasuan-kasuan zerbitzua betetzeko gaituta badaude. SPKLTBaren 58. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Enpresa horiek ezarrita dauden estatuko legeriak kasuan kasuko zerbitzua egin ahal izateko baimen bereziren bat eskatzen duenean, edo erakunde jakin bateko partaide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Europar Batasunetik kanpoko estatuetakoen pertsona fisikoek edo juridikoek jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomazia-misio iraunkorraren txostena beharko dute, edo enpresaren egoitza dagoen lurraldeko kontsularen bulegoarena. Txosten horren bitartez justifikatuko da enpresa atzerriarraren jatorrizko estatuak onartzen duela administrazioarekin eta SPKLTBaren 3. artikuluan aipatutako sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekin egiten diren kontratazioetan enpresa espainolek parte hartzeko aukera.

VICTORIA EUGENIArekin kontratatu ahal izango dute horretarako aldi baterako eratzen diren enpresaburuen elkarteek. Horretarako, ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan gauzatzea kontratua haien alde esleitu arte. SPKLTBaren 59. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Kaudimen tekniko edo profesionalerako gutxieneko baldintzak:

- Kontratuaren xede diren zerbitzuen antzekoak egin izana. Horretarako, azken hiru urteetan (2013, 2014 eta 2015) kontratuaren xede direnen antzeko zerbitzuak barne hartzen dituzten bi kontratu gutxienez, antzeko izaera eta kopuruak dituztenak, gauzatu direla ziurtatuko da.

Horrez gain, lizitatzailleek konpromisoa hartu beharko dute, kontratua gauzatzeko gutxienez honakoa giza bitarteko hauek atxikitzeko:

- Unibertsitate-titulua, maila ertainekoa edo diplomatura, duen pertsona bat. Kontratuaren xede diren funtzioen eta zereginen antzekoak egiten, eta, zehazkiago, Baldintza Teknikoen Agiri honen **1. Klausulan** deskribatutakoak egiten, gutxienez 5 urteko esperientzia duela ziurtatu beharko da.

Gainera, pertsona horrek ingelesa jakin beharko du Proficiency mailan, C2 mailan edo maila baliokidean, eta VICTORIA EUGENIAK egoki jotzen duen moduan egiaztatu ahal izango da hori.

Konpromiso hori funtsezko kontratu-betebeharra izango da SPKLTBaren 223. f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Urratuz gero, VICTORIA EUGENIAK kontratua bertan behera uzteko eskubidea du.

Kontratua egiteko eta/edo kontratura aipatutako gutxieneko giza baliabide jakin batzuk atxikitzeko konpromisoa betetzeko beharrezkoa den era berean aipatutako kaudimena ziurtatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritzeko asmoa duten lizitatzailleek, erakunde horiekin dituzten harremanen izaera juridikoa edozein dela, hala adierazi beharko dute 1. gutun-azalean sartu beharreko aitorpenean (**XI. eranskineko** eredura egokituko da). Gainera, eskaintza ekonomiko abantailatsuena aurkeztu duen lizitatzailleak Notarioaren aurrean egindako idatzia (**15. klausulan** aurreikusitako moduan eta **VI. Eranskinean** jasotako ereduaren arabera) aurkeztu beharko du. Bertan, esku hartzen du(t)en enpresak/ek honakoa adierazi beharko du(te): lizitatzailleak parte hartzen duen lizitazioaren baldintzen eragina ezagutzen dutela; aipatutako kaudimena dutela (ziurtagiria aurkeztu behar da, **15. klausulan** adierazten den moduan); eta aipatutako lizitatzaillea esleipendun suertatzen bada, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren bitartekoak uzteko borondate ezeztatzina (Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoak berariaz onartuko dute, eta bitartekorik ordezkatu edo aldatu behar bada, VICTORIA EUGENIAK berariaz baimendu beharko du). Idatzi hori aurkeztuz gero, VICTORIA EUGENIAK konpromiso hori onartzen duela adieraziko du, baldin eta lizitatzaille hori esleipendun suertatzen bada.

Eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkezten duen lizitatzailleak Kontratazio Organoaren aurrean egiaztatu beharko du, kontratua esleitu aurretik, **15. klausulan** eskatutako dokumentuak dituela eta horiek baliozkoak direla. Dokumentu horiek ziurtatu beharko dute VICTORIA EUGENIArekin kontratatzeke lege ezarritako baldintzak biltzen direla, eta klausula honetan eskatutako gaitasun eta kaudimen eskakizunak betetzen direla, proposamenak aurkezteko epearen amaiera datan. Egiaztapen hori aipatutako **15. klausulan** ezarritako eran ziurtatuko da.

Dena den, Kontratazio Organoak, esleipen-proposamena hartu aurreko edozein unetan, lizitatzailleek aipatutako **15. klausulan** adierazitako dokumentazioa aurkez dezaten eskatu ahal izango du.

11. PUBLIZITATEA

Lizitazio hau VICTORIA EUGENIAREN kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Esleipena VICTORIA EUGENIAREN kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Kontratugilearen profileraz sartzeko: <http://www.donostiakultura.com>.

12. ESKAINTZAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

Proposamenak aurkezteak esan nahi du lizitatzailleak baldintzarik gabe onartzen dituela Agiri hau, Baldintza Teknikoen Agiri osoa eta kontratuari lotutako gainerako dokumentazioa, inongo salbuespenik gabe.

Agiri hau eta Baldintza Teknikoen Agiria kontratatzailearen profilaren bitartez eskura daitezke, honako webgune honetatik: <http://www.donostiakultura.com>.

Halaber, dokumentazio hori DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN bulegoetan aztertu ahal izango da (Victoria Eugenia Antzokiko eraikina, Kontratazio Saila, Erregina Erregeordea, 8 - 5B, 20003 Donostia), astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, lizitazio-iragarkia argitaratu eta biharamunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epearen azken egunera arte.

Lizitazio honetan parte hartzeko, lizitatzailleek BI GUTUN AZAL ITXI aurkeztuko dituzte (A eta B) DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN bulegoetan **bertan**, erregistro-ordutegiaren barruan (astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara; udan 9:00etatik 13:30era) eta lizitazio-iragarkian adierazitako epean. Gutun-azal horietan beranduago aipatuko den dokumentazioa sartuko dute eta guztietan jarriko dute xede den kontratazioa, enpresaren izena, proposamenaren sinatzailearen izena eta abizenak eta izaera, telefono-zenbakia eta fax-zenbakia, eta helbide elektronikoa. Halaber, jakinarazpenak jasotzeko lehenesten den bidea adieraziko da, Agiri honen **II. Eranskin**eko ereduaren arabera.

Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Gutun-azal bakoitzak ondoren zerrendatuko diren dokumentuak edukiko ditu, eta bertan dauden dokumentuen zerrenda zenbakitua jasoko du.

1. gutun-azala.- "KONTRATATZEKO GAITASUNA"

Honako dokumentu hauekin:

a) Lizitatzaillearen erantzukizunpeko aitorpena, **XI. eranskin**era egokitutakoa. Bertan adieraziko du VICTORIA EUGENIAREKIN kontratatzeko legez ezarritako

baldintza guztiak eta agiri honen **10. klausulan** eskatutako gaitasun-baldintza guztiak betetzen dituela.

Dokumentu horretan jaso beharko da lizitazio-, esleipen- eta gauzatze-prozesuaren ondoriozko datu guztiei erakunde mailako gardentasuna emateko lizitatzailleak bere borondatez onartzeko adierazpena, prozesua amaitu arte (esleipendun suertatuz gero).

Enpresa atzerritarren kasuan, aipatutako erantzukizunpeko aitortzean, adierazitako **XI. eranskinean** aurreikusitako eran, espresuki adierazi beharko dute Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla, kontratuaren ondorioz zuzenean zein zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako; edozein kasutan, lizitatzailleari legokiokeen atzerriko jurisdikzio foruari uko eginda.

Era berean, enpresa lizitatzaillea beste enpresa lizitatzaille baten/batzuen talde berekoa izanez gero (halakotzat hartuta Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan jasotako kasuren batean daudenak), 2. atalean aipatzen den aitortzean inguruabar hori jasoaraziko da, eta taldeko beste enpresa lizitatzaillea/lizitatzailleak identifikatuko dira, **XI. eranskinean** aurreikusitako eran.

b) Zenbait enpresaburuk aldi baterako elkarte batean sartuta lizitazioan parte hartu nahi izanez gero, hura osatuko duten enpresaburu guztiek aurkeztu beharko dute a) atalean adierazitako aitortpena.

Gainera, guztiek sinatutako dokumentu pribatu bat aurkeztu beharko dute. Bertan, aldi baterako elkarte osatzen dutenen izenak eta baldintzak, eta bakoitzaren partaidetza adieraziko dute. Halaber, bertan jakinaraziko dute, esleipendun suertatzen badira, aldi baterako elkarte formalki eratze konpromisoa onartzen dutela, eta aldi baterako enpresa-elkartearen arduraduna edo ahalordea izendatuko dutela eta honek nahikoa botere edukiko duela kontratua iraungi bitartean eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko.

c) Kontratu gauzatzeko, gutxienez, **10. klausulan** adierazitako giza bitartekoak atxikitze konpromisoa.

Giza bitarteko horiek beste enpresa bati badagozkio, hori adierazi eta zein enpresari dagozkion identifikatu beharko da, **XI. eranskinean** egin beharreko aitortpenarekin batera.

Konpromiso hori funtsezko kontratu-betebeharra izango da SPKLTBaren 223. f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Urratuz gero, VICTORIA EUGENIAK kontratua bertan behera uzteko eskubidea du.

d) VICTORIA EUGENIAk egiten diren jakinarazpenak jasotzeko lehentasunezko bitartekoa aukeratzea, agiri honi **II. eranskin** gisa gehitutako ereduaren arabera.

Oharrak:

Donostia Kultura

Victoria Eugenia Antzokia SA

Erregina Erregeordearen kalea, 8 • 20003 Donostia / San Sebastián

tel (0034) 943 481 150 • faxa 943 483 900 • donostiakultura@donostia.eus

www.victoriaeugenia.com



Donostia Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

- i. VICTORIA EUGENIAk eskubidea du lizitatzailerik aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztatze-lanak egiteko edo dokumentazioa eskatzeko.
- ii. Enpresa horiek aurkezten duten dokumentazioa ofizialki gaztelaniara eta euskarara itzulita egongo da, 1098/2001 Errege Dekretuaren, Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen (aurrerantzean, 1098/2011 ED) Araudi Orokorra onartzen duenaren 23. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. gutun-azala.- "PROPOSAMEN TEKNIKO ETA EKONOMIKOA"

Dokumentu hauek edukiko ditu:

1. Proposamen tekniko.

Proposamen teknikoan lan-metodologia azaltzen duen memoria bat barne hartuko da, eta ondoren adierazitako edukia jasoko dira bertan:

- Kontratuaren lehen urtean egingo diren jardueren plana zehaztuko duen kronograma.
- Urteko helburuen zehaztapena.
- Antolamendu-proposamena eta lan-metodologia, ondorengo gidoian adierazitakoaren arabera kontratua gauzatzeko atxikiko diren giza baliabideekin loturik jarrita. Bertan, kokapen eta espezialitate batean edo bestean haien funtzioak, zerbitzuak eskaintzeko orduak adieraziko dira, baita lizitatzaileraren mendeko langileen gainean lizitatzaileraren mota guztietako enpresa- eta zuzendaritza-erantzukizunak burutzeko modua ere. Hori guztia, langileen legez kanpoko lagapena ematea lagundu dezaketen ekintzak edo egoerak ekiditeko helburu nagusiarekin.
- Lizitazio honen oinarrian uste da kontratua gauzatzeko atxikitako langileen kalitateak eragin handia izan dezakeela kontratu burutzeko garaian, zerbitzu intelektualei loturiko kontratuak direlako.

Testuinguru horretan, Plegu honetako **10. klausularen** arabera eskatutako minimoari eransteko giza baliabideen kontratua gauzatzeko atxikitzea eskaini ahal izango da.

Halaber, Plegu honetako **10. klausularen** arabera gutxienez atxikitako pertsonekin lotuta, aurreikusitako minimoak baino baliabide gehiago eskaini ahal izango dira.

Bi konpromisoak ondorengo klausulan aurreikusitako baldintzetan baloratu ahal izango dira.

- Kontratuaren esparruan egin beharreko lanak definitzea.
- Kontratua gauzatzeko metodologiari dagokionez interesgarritzat jotzen den alderdi oro.

Kontratazio publikoan klausula sozial jakin batzuk barne hartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legean xedatutakoa betetzeko asmoz, kontratuak indarreko legeen eta arauen xedapenak eta ohiko xedapenak –Lan, Gizarte Segurantzak eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren alorretan aplikatzekoak– bete behar dituela ohartarazten da.

Testuinguru horretan, atal honetan aurreikusitako memorian lizitatzailerik, esleipendun gertatuz gero, kontratuaren xede den jardura burutuko duten langileei zein hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien adieraziko dute.

2. Proposamen ekonomikoa.

Agiri honen **IV.D. Eranskinean** txertatzen den ereduaren arabera idatzitako proposamen ekonomikoa.

Gutun-azal honen dokumentazioa jatorrizkoa edo kopia sinplea izan daiteke. Hala ere, VICTORIA EUGENIAK, eskaintzak baloratzeko orduan, lizitatzailerik jatorrizkoak eskatu ahal izango dizkie, aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna ziurtatzeko.

VICTORIA EUGENIAK eskubidea du lizitatzailerik aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztatze-lanak egiteko edo dokumentazioa eskatzeko.

13. NEGOZIAZIO FASEA

VICTORIA EUGENIAK teknikariek aurkeztutako agiriak baloratuko dituzte, garaiz eta eraz, eta konpon daitekeen akatsik edo ez egiterik antzemanaz gero, 3 egun balioduneko epea utziko du, gehienez ere, lizitatzailerik akats edo ez egite horiek konpontzeko.

Aurkeztutako dokumentazioan antzemandako akatsak edo ez egiteak zuzendu eta gero, eta eskaintzaileen nortasuna eta kaudimena agiri honen **10. klausulan** ezarritakoaren arabera egiaztatu eta gero, negoziazio-fasea irekiko da. Ondoren adierazitako alderdi ekonomikoak eta teknikoak aztertuko dira:

- Zerbitzuengatik eskainitako urteko prezioa.
- Aurreko **12. Klausulan** zerrendatutako edukiak biltzen dituen lan-metodologia.

Negoiazioak irauten duen bitartean, Kontratazio Organoaren ardura izango da lizitatzailerik guztiek tratatu bera jasotzea. Bereziki, ez dio lizitatzailerik bati jakinaraziko modu diskriminatzailerik besteei abantailarik emango dion informaziorik.

Behin negoziazioa amaitu eta gero, jarrera aldatu duten parte hartzaileek azken eskaintza bidali beharko dute, eskaintzak baliozkotzeko eta eskaintza ekonomiko onuragarriena aukeratzeko.

Egindako gonbitak, jasotako eskaintzak, horiek onartzeko edo baztertzeko arrazoiak eta egindako negoziazioak espedientean jasoko dira.

14. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Honako hauek dira balorazio-irizpideak eta dagokien haztapena:

- **Proposamen teknikoa:** **Gehienez 70 puntu.**

- Kontratuaren lehen urtean egingo diren jardueren plana zehaztuko duen kronograma. Gehienez 7 puntu.
- Urteko helburuen zehaztapena. Gehienez 10 puntu.
- Antolamendu-proposamena eta lan-metodologia, kontratua gauzatzeko atxikiko diren giza baliabideekin loturik jarrita. Bertan, kokapen eta espezialitate batean edo bestean haien funtzioak, zerbitzuak eskaintzeko orduak, baita lizitatzailaren mendeko langileen gainean lizitatzailaren mota guztietako enpresa- eta zuzendaritza-erantzukizunak burutzeko modua ere. Hori guztia, langileen legez kanpoko lagapena egoten lagunduko duten ekintzak edo egoerak ekiditeko helburu nagusiarekin. Gehienez 10 puntu.
- Giza bitartekoak. Agiri honetako **10. Klausulan** eskatutakoarekiko atxikipen-konpromisoan barne hartutako giza bitarteko minimoen kualifikazio eta egokitasun handiena baloratuko da, baita agiri honetako **10. klausulan** eskatutakoaren minimoaren gainetik lizitatzailak kontratuari atxikitako giza bitartekoen kualifikazioa eta egokitasuna ere. Kualifikazio eta egokitasun horren barne, esperientzia gain, kontuan hartuko dira kontratua burutzeko jarduerekin lotutako gaietan eskainitako titulazioak eta prestakuntza. Hau da, kontratuaren xedearekin lotutako gaietan, dagozkien titulazioen bidez egiaztatutako prestakuntza osagarria baloratuko da, baita beste lizentziatura, master, graduondoko beste ikasketa batzuk eta/edo hizkuntzak edukitzea ere. Gehienez 30 puntu.
- Kontratuaren esparruan egin beharreko lanak definitzea. Gehienez 10 puntu.
- Kontratua gauzatzeko metodologiari dagokionez, interesgarritzat jotzen den alderdi oro. Gehienez 3 puntu.

- **Proposamen ekonomikoa:** **Gehienez 30 puntu.**

Jarraibide hauen arabera baloratuko da:

Eskaintza ekonomikoari dagozkion puntuak irizpide automatiko gisa baloratuko dira jarraian ezartzen den honako formula honen bitartez.

Puntuazioa honako balio hauen artean proportzionalki emango da:

1. Urteko lizitazioaren aurrekontu maximoa.
2. Honakoen arteko kantitate txikiena:

- a) Eskaintza baxuena
- b) Urteko lizitazio-aurrekontu maximoa, ken % 20.
- c) Eskaintzako batez besteko prezioa, ken % 10.

Honela baloratuko da: Agiri honetako **7. klausulan** finkatutako urteko lizitazioko aurrekontu maximoaren urteko prezio baliokidea eskaintzen duenak 0 puntu lortuko ditu eta, gainerakoei, formula matematiko hau aplikatuko zaie.

$$Ptn = \frac{(PI - On)}{(PI - OI)} \times Pto.$$

(PI = Lizitazioko aurrekontu maximoa; Pto = Puntuazio maximoa; OI = Prezio baxuena 2. atalaren arabera; On = Lizitatzailer bakoitzaren eskaintza ekonomikoaren prezioa; Ptn = Lizitatzailer bakoitzak eskuratutako puntuazioa).

15. KONTRATUAREN ESLEIPENA

Aurkeztutako eskaintzak aztertuta eta, hala badagokio, parte hartzaileekin negoziatu eta gero, VICTORIA EUGENIAko langile teknikoek aztertuko eta baloratuko dituzte lizitatzailer azken eskaintzak, agiri honen **14. klausulan** adierazitako balorazio-irizpideen arabera. Ondoren, aurkeztutako proposamenen zerrenda, handienetik txikienera sailkatuta, bidaliko diote Kontratazio Organoari eta ekonomikoki eskaintza onuragarriena identifikatuko dute.

VICTORIA EUGENIAko langile teknikoen proposamen horri buruzko txosten juridikoa egingo da.

Proposamena egin aurretik, esleipenari buruz nahi beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu.

Teknikariek proposamen ekonomiko onuragarriena identifikatzeak ez du eskubiderik sortzen proposatutako lizitatzaileraren alde VICTORIA EUGENIAren aurrean.

Esleipenerako lizitatzailer aukeratzeko, Kontratazio Organoa bat etorriko da, oro har, teknikariek egindako proposamenarekin. Aitzitik, Kontratazio Organoak proposamenetik bereizteko erabakia arrazoitu beharko du eta, hala badagokio, proposamenak behin betiko identifikatuko ditu.

Kontratazio Organoak jarraian adieraziko den dokumentazioa eskatuko dio eskaintza ekonomiko onuragarriena egin duen lizitatzailerari, eta lizitatzailer bost egun balioduneko epea edukiko du aurkezteko, horretarako errekerimendua jaso eta biharamunetik hasita:

a) Proposamenak aurkezteko epea amaitzeko datan, honako eskakizun hauek betetzearen ziurtagiriak: VICTORIA EUGENIArekin kontratatzeke lege ezarritako baldintza guztiak eta agiri honen **10. klausulan** eskatutako gaitasun-baldintza guztiak, jarraian adierazten den eran. Aldi baterako elkarte batean sartuta parte

hartu nahi duten enpresaburuek proposamena aurkeztuz gero, aipatutako dokumentazioak elkarte osatu behar duten enpresa guztiena izan behar du.

1. Lizitatzaillearen eta, hala badagokio, haren ordezkariaren nortasunari eta jarduteko gaitasunari buruzko ziurtagiriak:

- Pertsona juridikoak diren enpresaburuen kasuan, enpresako eskritura edo sorrera-agiria, Estatutuak edo sorrera-egintza aurkeztu behar dira jarduteko gaitasuna ziurtatzeko (dokumentu horietan zehazten dira jardura arautzen duten arauak). Dokumentu guztiak dagokien erregistro publikoan behar bezala inskribatuta egongo dira, pertsona juridiko motaren arabera dagokionean.
- Europar Batasuneko kide diren estatueto enpresa ez espainolei dagokienez, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, kasuan kasu Estatuko legeriaren arabera dagokien Erregistroan izena emanda daudela ziurtatu behar da, edo zinpeko aitorpen edo ziurtagiri bat aurkeztu bestela, ezar daitezkeen Europar Erkidegoko xedapenei jarraituz.
- Atzerriko gainerako enpresaburuen jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomazia-misio iraunkorraren txostena beharko da, edo enpresaren egoitza dagoen lurralde esparruko kontsularen bulegoarena. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLTBaren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.
- Pertsona fisikoak diren enpresaburuen kasuan, nortasun agiri nazionala edo dagokien estatuko agiri baliokidea aurkeztuko da jarduteko gaitasuna ziurtatzeko.
- Ordezkari gisa aurkeztu diren pertsonak, edo proposamenak beste norbaiten izenean sinatzen dituztenek, nortasun agiri nazionalaren kopia aurkeztuko dute, bai eta horretarako ahalorde askietsia ere. Enpresa pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da ahalordea, Merkataritza Erregistroaren Araudiko 94. artikuluan aurreikusitakoak horrela eskatzen badu, edota, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan aurreikusitakoak eskatzen badu, dagokion pertsona juridiko motaren arabera.

Aurkeztuko diren dokumentu horiek guztiak jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako kopiak izango dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaille eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitatzailleak, bestalde, erregistroaren ardura duen legelariak emandako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkez dezakete, 1) atalean aipatutako dokumentazioaren ordez. Inskripzio-ziurtagiriarekin batera, lizitatzailleak ziurtagiriak adierazitakoa aldatu ez dela adierazten duen erantzukizunpeko aitorpen sinatu bat aurkeztuko du.

2. SPKLTBaren 60.1 artikuluan kontratuak egiteko ezartzen diren debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duen lizitatzaillearen erantzukizunpeko aitorpena,
III. eranskinean azaltzen den ereduaren arabera.

3. Zerga betebeharak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen egiaztagiria.

Esleipendunak ekonomia jardueren gaineko zerga (EJZ), kontratuaren xede den epigrafean, alta hartu duela egiaztatu beharko du. Horretarako, alta-agiria aurkeztu beharko du, uneko ekitaldiari baldin badagokio, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Nolanahi ere, zerga horren izen ematean baja hartu ez izana adieraziko duen erantzukizunpeko aitorpena gaineratu beharko da.

b) Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa egiaztatze dokumentuak, **10. klausulan** aurreikusitakoaren arabera.

Kaudimen teknikoa edo profesionala ondoren adierazitako moduan ziurtatuko da:

- Azken hiru urteetan (2013, 2014 eta 2015) kontratuaren xede diren antzeko zerbitzuak, izaera eta kopuru antzekoak dituztenak, biltzen dituzten bi kontratu gauzatu direla adieraziko duen aitorpena.
- Azken hiru urteetan (2013, 2014 eta 2015) kontratuaren xede diren zerbitzuen esparruan egindako zerbitzuen zerrenda; datak, hartzailea, publikoa edo pribatua, eta bakoitzaren kopuruak adierazita.

c) Kontratua gauzatzeko eskaintzan hitz emandako giza bitartekoak benetan esleitu izanaren egiaztagiriak.

Kontratua gauzatzeko eskaintzan hitz emandako giza bitartekoei dagokienean –bai Agiri honen **10. klausulan** eskatutako minimoagatik, bai **12. klausulan** xedatutakoaren arabera giza bitarteko gehigarrien bidez–, aukeratutako lizitatzailleak honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- Kontratua gauzatzeko atxiki duen ekipoko kideen izenak, curriculum vitae-ko fitxekin batera. Bertan, honako datuak bilduko dira:
 - Titulazio akademiko ofiziala.
 - Dagokion esparruan esperientzia.
 - Hizkuntzekin lotuta eskatutako baldintzak betetzen dituela.
- Giza bitarteko horiek guztiak benetan badituztela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (aurrerantzean DBLO) aurreikusitakoaren arabera eta informazio horren izaera kontuan hartuta, honakoa adierazten da: (i) aurreko paragrafoetan aipatutako informazioa edo Agiri honetan aipatutako antzeko beste edozein informazio datu pertsonal gisa tratatuko du lizitatzaille bakoitzak, tratamenduaren arduradun den aldetik; eta (ii) agiri honetako klausulan edo beste edozein klausulatan aurreikusitakoa betez, datuak kontratazio-organoari entregatzeak, lizitatzaille bakoitzak lagatzaile gisa egindako datu-lagapena ekarriko du.

Helburu horiekin, lizitatzaille bakoitzak, aurreko paragrafoan aipatutako datuen tratamenduarekin eta lagapenarekin lotuta, DBLOn xedatutakotik ondorioztatuko diren obligazioak bete beharko ditu, berari dagokionean. Bereziki, eta Tratamenduaren Arduradun den aldetik kontuan hartu behar dituen beste edozein betebeharren kalterik gabe, lizitatzaille bakoitzak DBLOren 11. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko du eta, bere erantzukizunpean soilik, aipatutako datuen lagapenak gaitzeko interesdunen alde aurreko onarpena lortu beharko du. Lizitatzailleak onarpen hori Kontratazio Organoaren aurrean behar bezala frogatu beharko du, hala eskatzen zaionean.

VICTORIA EUGENIAk eskubidea du lizitatzailleek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztatze-lanak egiteko edo dokumentazioa eskatzeko.

d) Hala badagokio, adierazpenen notario-akta aurkeztuko da, lizitatzailleak, eskatutako kaudimena duela eta/edo kontratura gutxieneko giza bitartekoak atxikitzeko konpromisoa beteko duela ziurtatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritzeko asmoa badu, **VI. eranskinean** jasotako ereduaren arabera.

Aurreko b) eta c) ataletan aurreikusitako eran ziurtatuko da kanpoko erakundeek inguruabar horiek betetzen dituztela.

e) Hala badagokio, aldi baterako enpresa elkarte legez eratu dela ziurtatuko da. Aldi baterako enpresa elkartearen arduraduna edo ahalordea izendatuko da eta nahikoa botere edukiko du kontratua iraungi bitartean eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko.

f) Atzerriko enpresek, bestalde, berariazko adierazpena aurkeztu beharko dute. Bertan, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitekeen gorabehera orotarako, Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko direla adieraziko dute.

g) Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko betebeharrak betetzen direla adieraziko duen zinpeko aitorpena, **V. eranskin** gisa gehitutako ereduaren arabera.

h) VICTORIA EUGENIAren instalazioetan egingo diren lanei buruzko arriskuen ebaluazioa edo antzeko dokumentua, arriskuak eta horiek saihesteko neurriak adierazita (ahal dela, euskarri digitalean -CD/DVD edo antzekoa-).

Oharrak:

- VICTORIA EUGENIAk eskubidea du lizitatzailleek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztatze-lanak egiteko edo dokumentazioa eskatzeko.
- VICTORIA EUGENIAk konpon daitekeen akatsik edo ez-egiterik antzemanaz gero aurkeztutako dokumentazioan, hiru egun balioduneko epea emango da, gehienez ere, akats edo ez-egite hori konpontzeko.

- Enpresek aurkezten duten dokumentazioa ofizialki itzuliko da gaztelaniara edo euskarara, 1098/2001 Errege Dekretuaren 23. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Epearen barruan aipatu berri den dokumentazioa aurkezten ez bada, lizitatzailerak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da. Horrela bada, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzailerari, eskaintzen sailkapenaren hurrenkeran.

Kontratazio Organoak aipatutako dokumentazioa (behar bezala zuzenduta, hala badagokio) jaso eta hurrengo bost egun baliodunetan erabakiko du kontratuaren esleipena; eta gehienez ere bi hilabeteko epea edukiko du, proposamenak irekitzen diren egunetik hasita.

Esleipena ebazpen arrazoitu bidez erabakiko du Kontratazio Organoak, eta lizitatzailerari jakinaraziko zaie, proposamenaren jakinarazpenak egiteko adierazi duten bitartekoa erabiliz. Aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Esleipenarekin batera zehaztuko eta finkatuko da kontratuaren behin betiko edukia.

16. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzean burutuko da.

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da bost egun balioduneko epearen barruan, esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hala ere, esleipendunak kontratuaren eskritura publikoa egiteko eska dezake. Kasu horretan, bere kontura izango dira formalizazio-gastuak.

Kontratugileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua aipatutako epearen barruan formalizatu ez bada, VICTORIA EUGENIAK kalte eta galerengatik dagokion kalte-ordaina eska dezake.

Kasu horretan, VICTORIA EUGENIAK agiri honen **15. klausulan** adierazitako dokumentazioa eska diezaioke lizitatzailerari, eta horrek bost egun balioduneko epea edukiko du dokumentazio hori aurkezteko.

17. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio Organoak kontratuaren arduraduna izenda dezake. Arduradun horren lana izango da kontratuaren gauzatzea gainbegiratzea eta hitzartutako zerbitzua behar den bezala eskaintzen dela ziurtatzeko jarraibideak ematea eta gauzatzea, berari dagozkion eskumenen barruan.

Kontratuen arduraduna pertsona fisiko bat edo juridiko bat izan daiteke, VICTORIA EUGENIAren barrukoa edo kanpokoa.

Enpresa esleipendunak nahitaez beteko ditu kontratuen arduradunak ematen dituen jarraibideak. Jarraibide horiek kontratistak izendatutako hizketakideari zuzenean jakinaraziko zaizkio.

18. KONTRATUA GAUZATZEA

Hain zuzen ere, jarraian adieraziko dira kontratua gauzatzeko kontuan hartuko diren baldintzak:

- Kontratuak indarreko legeen eta arauen xedapenak eta ohiko xedapenak -Lan, Gizarte Segurantzaren eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren alorretan aplikatzekoak- bete behar ditu.

Testuinguru horretan, Agiri honetako **12. klausulan** lizitatzailleek, esleipendun gertatuz gero, kontratuaren xede den jarduera burutuko duten langileei zein hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien adieraziko dute. Kontratuaren xede den jarduera burutuko duten langileei enpresa esleipendunak aplikatuko dien hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen-ebazpenaren barruan sartuko da eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Gainera, esleipendunak, kontratua esleitu ondoren, langile horiei ezarriko zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen zaion informazio guztia eskaini beharko du.

Kontratuak irauten duen denboran, esleipendunak langileari dagokion kategoria profesionalaren arabera aplikatzeko den hitzarmen kolektiboan bildutako soldata ordaindu beharko dio. Ordainduko zaion soldata hitzarmenean jasotakoaren berdina edo handiagoa izango da.

SPKLTBaren 223.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, atal honetan xedatutakoak funtsezko betebeharra eta gauzatzeko izaera berezia du. Hortaz, bertan adierazitako edozein baldintza betetzen ez bada, eta VICTORIA EUGENIAK hala nahi badu, kontratua bertan behera uzteko arrazoia izango da.

- Kontratua kontratistaren arriskuz eta menturaz gauzatuko da.
- Kontratua gauzatzeko, zorrotz heldu beharko zaie haren klausulei, agiri honetan adierazitakoari, baldintza teknikoan agirian adierazitakoari, kontratatutako zerbitzuen izaerari dagozkien arau tekniko propioak eta esleipendunak aurkeztutako azken eskaintzari, eta VICTORIA EUGENIAK kontratuaren interpretazio teknikoa egitean kontratistari ematen dizkion jarraibideei.
- Kontratua VICTORIA EUGENIAK zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuta gauzatuko da. VICTORIA EUGENIAK kontratuko betebeharrak zuzen betetzen direla eta guztiak behar den bezala gauzatzen direla kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu dezake, edozein unetan eta edozein bitarteko baliatuz.

Xede horrekin, VICTORIA EUGENIAK egokitzat jotzen dituen kanpo laguntzak jasoko ditu, kontratuko betebeharrak behar den bezala betetzen direla egiaztatzeko edo ikuskatzeko, baita lanak kalitate maila egokiaz egin direla egiaztatzeko ere.

Enpresa kontratistak VICTORIA EUGENIAK zerbitzuekin lotuta eskatzen dizkion datu guztiak aurkeztuko ditu, beharrezkoa den laguntza guztia emango du, kostu gehigarririk gabe, eta, zenbait kasutan, kontratatutako zerbitzuen lan, administrazio, edo bestelako alorretako dokumentazioa emango du.

Enpresa kontratistak ez du oztoporik jarriko VICTORIA EUGENIAk egiten dituen ikuskapen eta kontrol lanetan.

Hala ere, VICTORIA EUGENIAk edozein motatako ez betetze edo eragozpen atzematen badu, zuzenean kontratistak izendatutako kontratuaren arduradunari edo solaskideari jakinaraziko zaio. Honi dagokio, azken batean, zerbitzua eskaintzen duten langileen gainbegiratzea antolatzeke ahalmena edo haiek zigortzekoa.

- Kontratistak izango du egiten dituen prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, baita kontratua gauzatzean egiten dituen utzikeriek, akatsek edo metodo desegokiek erakunde kontratugileari edo hirugarren batzuei eragin diezazkieketen ondorioena ere.
- Kontratistak zerga-esparruko, lan-esparruko, Gizarte Segurantzako eta Laneko Arriskuen Prebentzioko indarrean dauden xedapen guztiak bete behar ditu, zerbitzua egiteko enplegatzen dituen langileei dagokienez.
- Langile guztiak kontratistaren mendekoak dira. Kontratistarenak dira bere enpresa-izaerari dagozkion eskubideak eta betebeharrak eta ezin izango zaio VICTORIA EUGENIAri erreklamaziorik egin dagozkion lan-harremanengatik edo gainerako betebeharrengatik.

Kontratista izango da arduradun bakarra zerbitzua gauatzeko ardura duten langileekin lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala edo estrajudiziala). VICTORIA EUGENIAk ez du lan-erantzukizunik (laneko segurtasun, higiene eta osasunarekin lotutakorik), ez eta Gizarte Segurantzarekin edo zerga-esparruarekin lotutako erantzukizunik ere, kontratistak zuzenean edo zeharka hartzen dituen betebeharrak dagokienez. Modu berean, kontratistak bere gain hartuko ditu zerbitzua eskaintzean gerta daitezkeen ezbeharrek eragindako erantzukizunak.

- Kontratistak DBLOk eta berori garatzeko araudiak xedatutakoaren ondoriozko betebeharrak beteko ditu, datu pertsonalik tratatzen badu kontratua indarrean dagoen bitartean, bere jardueren esparruan eta bere kontura eta bere erabakiz, tratamendu horren arduradun den aldetik; agiri honen **20. klausulan** berariaz ezarritakoaz gainera bete beharko da hori guztia.

19. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

Hona kontratistaren funtsezko kontratu betebeharrak:

- Kontratua bere klausulek, Agiri honek eta Baldintza Teknikoen Agiriak adierazten dutenera lotuta betetzea, eta Kontratazio Organoak kontratistari ematen dizkion jarraibideetara lotuta betetzea.
- Lanak kontratistak aurkeztutako kronogramaren eta laneko metodologiaren arabera, eta baldintza teknikoaren agiriaren **2. eta 3. klausuletan** adierazitako terminoetan eta baldintzen arabera gauzatzea.

- Agiri honen **6. klausulan** aurreikusten den luzapena adosten bada, kontratuaren bigarren urteari dagozkion jardueren plana zehaztuko duen kronograma aurkeztea, bigarren urtea hasi baino 15 egun lehenago, gutxienez, betiere baldintza teknikoaren agiriaren **3. klausulan** ezarritako terminoen eta baldintzen arabera.
- Kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz hirugarreni eragin ahal zaizkien kaltegalera guztien kalte-ordainak.
- Lan-esparruan indarrean dauden lege-xedapenak betetzea (hitzarmen kolektiboa, ordainsariak, etab.), eta Gizarte Segurantzako betebeharrak eta laneko segurtasun eta osasunekoak betetzea; VICTORIA EUGENIAK ez du erantzukizunik izango betebeharrak hori urratzen bada.
- Segurtasunaren eta lan-osasunaren arloetan, VICTORIA EUGENIAK agintzen zaizkien jarraibideen jarraipena kontratistak izendatutako hizketakideak egitea. Zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsonen jakinarazi beharko dizkie hizketakide horrek aipatutako jarraibideak.
- Langile guztiak behar den bezala kontratatuta egongo dira eta alta emanda Gizarte Segurantzaren kontratistaren kontura, eta ez da inolako lotura juridikorik egongo langile horien eta VICTORIA EUGENIAren artean, ez kontratuaren indarraldian, ez inoiz.

Edozein unetan eska diezaioke VICTORIA EUGENIAK esleipendunari lan-kontratuaren kopia eta/edo Gizarte Segurantzako afiliazioaren kopia.

Langile horiek ez dute lan-loturarik, ezta beste mota bateko loturarik edukiko VICTORIA EUGENIArekin, eta ez da subrogatuko kontratistaren eta bere langileen arteko kontratuko loturetarik.

- Greba kasuan, zerbitzuak beteko dira. Zerbitzuak bermatzen ez badira, VICTORIA EUGENIAK eskumena du zerbitzuak estaltzeko beharrezkoak diren kontratuak sustatzeko. Horrelakoetan, kontratu horien zenbatekoak fakturaziotik murriztuko dira.
- Langileak ordezkatzeko, dagokien lana behar bezala ardura eta eraginkortasunez egiten ez badute, gaitasun nahikoa ez badute, zerbitzuak eskaintzean ardura nahikoa ez badute edo kontratua ondo garatzeko ekintza kaltegarriak egiten badituzte. VICTORIA EUGENIAK errekerimendua egin eta gehienez ere 24 orduko epean egingo dira ordezkapenak.
- Langileak ordezkatzeko gaixotasun, opor, baimen, istripu, eta abarregatik izaten diren bajak estaltzeko; betiere, kontratatutako zerbitzuak modu eraginkorrean, jarraituan eta uniformearen egingo direla ziurtatuta. VICTORIA EUGENIAK errekerimendua egin eta gehienez ere 24 orduko epean egingo dira ordezkapenak.
- Eskaintzan barne hartutako giza bitarteko guztiak kontratura atxikitzea.
- Zerbitzua behar bezala egiteko bidezko lizentzia eta baimen guztiak lortzea. Era berean, enpresa kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua betetzeko

gauzatu behar dituen gastuak, bai eta jarduera gauzatzeagatik dagozkion tasa eta zerga mota guztiak ere; halaber, bere gain hartuko ditu kontratua indarrean dagoen bitartean kontratua gauzatzeagatik ondoriozta daitezkeen betebeharrak guztiak.

- Kontratua behar den bezala garatu eta betetzeko VICTORIA EUGENIAk beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak egitea, ordainketa gehigarriak jasotzeko eskubiderik gabe. Betebeharrak hori kontratua amaitu arte mantenduko da.

Klausula honetan jasotako betebeharrak kontratu-betebeharren izaera izango dute SPKLTBaren 223.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Horiek urratzea kontratua deuseztatzeke arrazoi izan daiteke, VICTORIA EUGENIAk eskatzen badu.

20. DATUEN BABESA

Kontratazio honen xede den zerbitzugintzak, zerbitzuen edukia kontuan izanda, eska lezake: (i) kontratistak datu pertsonalak tratatzea hirugarren erakunderen kontura, VICTORIA EUGENIAk tratamenduaren arduradun gisa erakunde horiekin harremana duelako; eta/edo (ii) kontratistak fitxategi jakin batzuei gehitutako datu pertsonalak eskuratzeko, VICTORIA EUGENIAk horien gainean tratamenduaren arduradun gisa diharduelako.

Testuinguru horretan, kontratistak espresuki aitortu behar du badakiela behartuta dagoela honako xedatutakoa betetzera: DBLOa (bereziki, haren 9., 10. eta 12. artikuluetan adierazitakoa); 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, DBLOa garatzeko araudia onartzen duena (aurrerantzean, DBLOA); eta arau horiek garatzeko gainerako xedapenak.

Hala, DBLOak ezartzen duenez, kontratista, tratamenduaren arduradun gisa, behartuta dago VICTORIA EUGENIArekin datuak eskuratzeko dagokion kontratua hitzartzeko, DBLOaren 12. artikuluan eta DBLOaren 20. artikuluan zehaztutako edukiaz eta hedaduraz.

Datuak eskuratzeko kontratu hori VICTORIA EUGENIAren eta kontratistaren artean zerbitzugintzako kontratua sinatzen den aldi berean izenpetu beharko da.

Nolanahi ere, datuak eskuratzeko aipatutako kontratuan horri buruz ezartzen dena kontuan izan gabe, lizitazio honen xede den kontratazioa dela-eta, kontratista behartuta dago honako aurreikuspen hauek betetzera:

- DBLOan, DBLOan eta kontratua esleitzeko datan edo hau indarrean dagoen garaian indarrean egongo diren gainerako arauetan xedatutakoa beteko du.
- Behar bezala beteko ditu interesdunari jakinarazteko eta haren baimena lortzeko betebeharrak (DBLOaren 5. eta 6. artikuluetan daude aurreikusita), VICTORIA EUGENIAk tratamenduaren arduradun gisa harremana dueneko erakundearen kontura datu pertsonalak biltzen dituenean. Horrenbestez, erakunde horiek aipatutako datuen tratamenduaren erantzule izango dira.

- DBLOAn aurreikusitakoaren arabera dagozkion segurtasun-neurriak hartuko ditu.
- VICTORIA EUGENIAk eskatzen dionean, VICTORIA EUGENIAk tratamenduaren arduradun gisa harremana dueneko erakunde (tratamenduaren erantzuleen) kontura tratatutako datuen isilpekotasuna eta segurtasuna ziurtatzeko hartutako neurrien deskribapen-memoria aurkeztuko du, erakunde horiek emandako dokumentazioaz gainera.
- VICTORIA EUGENIAri jakinaraziko dio segurtasun-neurri horiek abian jartzeko eta ikuskatzeko zuzeneko arduraduna/arduradunak zein den/diren.
- Datuak babesteko arloan indarreko araudiaren ondoriozko betebeharren inguruan bere langileak hezi eta informatuko ditu.
- Bai kontratista, bai lizitazio honen xede den kontratuan parte hartzen duten haren langileak behartuta egongo dira kontratuaren indarraldian eskuratzen dituzten edo ezagutzen dituzten datu, dokumentu eta gaien inguruko sekretu profesionalari eustera eta haiek gordetzera.

21. KONFIDENTZIALITASUNA

Esleipenaren publizitateari dagokionez eta lizitatzailerei eman beharreko informazioari dagokionez Agiri honetan xedatzen denaren kalterik gabe, VICTORIA EUGENIAk ezin izango du zabaldu lizitatzailerek konfidentzialtzat jo duten informazioa, batez ere, sekretu tekniko edo komertzialekin zerikusirik duenean.

Kontratatistak, bere aldetik, kontratuak gauzatzeko eskuratzen eta ematen duen informazioaren konfidentzialtasuna gordeko du, agirietan izaera hori ematen bazaio edo berez konfidentzialtzat tratatu behar bada.

Konfidentzialtasunak iraupen mugagabea edukiko du.

22. JABETZA INTELEKTUALA

Kontratatistak, kontratazio honen xede diren zerbitzuak gauzatzearen ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideei lotutako edukiak, materialak eta/edo beste edozein elementu sortuz gero, horien gaineko jabetza, beren osotasunean edo faseetako edozeinetan, VICTORIA EUGENIAri soilik egokituko zaio. Hori guztia kalterik egin gabe kontratatistari legozkiokkeen egile-eskubide moralei, Jabetza Intelektualaren Legearen testuategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. VICTORIA EUGENIAk eskubide horiek behar bezala gordeko ditu.

Ondorioz, VICTORIA EUGENIArenak eskusiban izango dira eskubide hauek: erabilera-eskubidea, ustiapen-eskubideak (erreproduzitzeko eskubidea, banatzeko eskubidea, osorik edo zati batean jendaurrean ezagutzera emateko eskubidea, eta itzultzeko, egokitzeko edo beste edozein aldaketa egiteko eskubidea), eta, oro har, kontratazio honen xede diren zerbitzuak egitearen ondorioz sortutako edukien, materialen eta/edo beste edozein elementuren gaineko jabetza intelektualaren

ondare-eskubide guztiak. Horrela izango da mundu osorako eta legez ezarritako gehieneko eperako, eta VICTORIA EUGENIAk askatasunez erabili ahal izango ditu, egokitzen jotzen dituen irizpideen arabera.

Kontratazio honen xede diren zerbitzuak gauzatzeko sortu diren aipatutako edukiak, materialak eta/edo beste elementu batzuk modu baketsuan erabiliko direla ziurtatu beharko dio kontratistak VICTORIA EUGENIAri, baita haien titulartasuna ere; hala badagokio, kostu bakar batean eta VICTORIA EUGENIAren alde, bere burua behartuko du legez eta baimendutako iturrietatik eskuratu beharreko lizentziak eta eskubideak lortzera, zerbitzu horiek egitean erabilitako edozein elementuren eta/edo VICTORIA EUGENIAri Klausula honetan adierazitako moduan erabiltzen eta ustiatzen uzteko moduan emaitzetan sartutako edozein elementuren gainean.

Dena dela, aurretik identifikatutako edozein elementurekin lotuta, kontratuarekin zerikusirik ez duten hirugarrenek aurkez ditzaketen jabetza intelektualaren eta/edo industrialaren inguruko erreklamazio guztien erantzulea izango da kontratista. Gainera, hitzematzen du VICTORIA EUGENIAri beharrezko kalte-ordainak emango dizkiola, kontzeptu horien ondorioz etor daitezkeen erreklamazioetatik hari sor lekizkiokeen kalte-galera guztiengatik.

Klausula honetan adierazitako guztia kontuan hartu da, kontratuaren prezio gisa kontratistak jasoko duen ordainsari maximoa zehazteko.

23. BERMEAK

Ez da bermerik eskatzen.

24. ZEHAPENAK

Berari egotz dakizkiokeen arrazoiak medio, kontratistak, VICTORIA EUGENIAk, baldintza teknikoan agiriko **3. klausulan** ezarritakoaren arabera, proposatutako edo zehaztutako kronograman jasota dauden gauzatze-epeetan atzeratzen bada, VICTORIA EUGENIAk kontratua deuseztatzea erabaki ahal izango du, **30. klausulan** adierazitako baldintzen arabera, edo kontratua gauzatzen jarraitzea erabaki. Kasu horretan, egunero sortuko dira zigorrak, 300 euroko zenbatekoaz.

Gauzatze akastuna eginez gero nahiz edozein kontratu-baldintza beteko ez balitz, akatsa konpontzeak kontratuaren xede diren lanen gauzatzea atzeratu duen guztizko egun kopuruaren gainean aplikatuko da zigor hori, edota ez-betetzeak iraun duen guztizko egun kopuruaren gainean, hurrenez hurren.

Nolanahi ere, klausula honen babespean ezar daitezkeen zigorrak metagarriak izango dira benetan eragindako kalte-galerei dagokienez.

Kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzen bada, eta ez betetzeak iraun bitartean, VICTORIA EUGENIAk edozein unetan utz dezake indarrik gabe kontratua, lehen adierazitako ondorioekin.

Zigorak ordaintzeko, kontratistari, ordainketa osoa edo zatikoa egiteko ordaindu beharreko kopuruak murriztuko zaizkio; edozein kasutan, erreklamazioa aurkez daiteke, eratutako bermea gainditzen duen kopuruaren arabera.

Edozein modutan, kontratua deuseztatu zein jarraitu erabaki, VICTORIA EUGENIAK egokitzen jotzen duen denboran hirugarrenen bitartez zerbitzua egiten jarraitzea erabaki dezake berak bakarrik. Kasu horretan, kontratistak ordainduko du jarraipen horren kostua, kalte-galerei eta klausula honetan aurreikusitako ondorioei kalterik egin gabe.

25. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratutik ondorioztatzen diren eskubide eta betebeharrak hirugarren bati utzi ahal izango zaizkio, baldin eta VICTORIA EUGENIAK aurretiazko baimena ematen badu, espresuki eta idatziz. Edonola ere, lagapen-hartzaileak lege-betebeharrak eta agiri honetan VICTORIA EUGENIArekin kontratatzeako eskatutako betebeharrak bete beharko ditu, eta ez du kontratatzeako debekurik izan behar. Gainera, bere kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatu beharko du, eta agiri honetan aurreikusitako giza bitartekoen esleipena eta, hala badagokio, esleipendunak eskainitako esleipen gehigarria bete beharko ditu. Hori guztia lagapenaren xede diren eskubide edo betebeharrei dagokienez.

26. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratuaren prestazioak azpikontratatu ahal izango dira, baldin eta VICTORIA EUGENIAK aurretiazko baimena ematen badu, espresuki eta idatziz. Edonola ere, enpresak lege-betebeharrak eta agiri honetan VICTORIA EUGENIArekin kontratatzeako eskatutako betebeharrak bete beharko ditu, eta ez du kontratatzeako debekurik izan behar. Gainera, bere kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatu beharko du, eta agiri honetan aurreikusitako giza bitartekoen esleipena eta, hala badagokio, esleipendunak eskainitako esleipen gehigarria bete beharko ditu. Hori guztia azpikontratatu beharreko zerbitzugintzari dagokienez.

Enpresa azpikontratatistak esleipendunaren aurrean soilik hartzen du konpromisoa. Hortaz, esleipendunak hartuko du bere gain egiten duen zerbitzuaren erantzukizun osoa VICTORIA EUGENIAren aurrean; betiere, ekonomia- eta administrazio-klausulen agiriari, baldintza teknikoaren agiriari eta sinatzen den kontratuaren baldintzei zorroztz lotuta, eta gizarte- edo lan-arloan betebeharrak betetzea barne hartuta.

27. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du, SPKLTBaren 107. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

28. KONTRATUGILEAREN ERANTZUKIZUNA

Kontratistak izango du egiten dituen lanen eta egiten dituen zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, baita kontratua gauzatzean egiten dituen utzikeriek, akatsek, metodo desagokiek edo okerreko ondorioek VICTORIA EUGENIARI edo hirugarren batzuei eragin diezazkiekeen ondorioena ere.

Kontratistak ordainduko ditu kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragin ahal zaizkien edo langileek (langile propioek edo azpikontratatuak) jasaten dituzten kalte-galera guztiak.

VICTORIA EUGENIAK ez du erantzukizunik enpresa kontratistaren lege-ordezkariei edo harekin lankidetzan diharduten edo hari zerbitzuak egiten dizkieten pertsonen egite edo ez-egiteen ondorioz hirugarrenei eragindako kalteen gainean.

29. HARRERA

Kontratua guztiz beteko du kontratistak zerbitzugintza osorik egin duenean, betiere kontratuan adierazitako terminoetan eta VICTORIA EUGENIAREN adostasunarekin.

Edozein modutan, baldintza teknikoen agirian aurreikusitakoa betez eta esleipendunak proposatutako kronogramaren arabera, kontratua gauzatu ahala harrera partzialak egingo dira, kontratuko xedea osatzen duten zereginiei dagokienez.

Zati bakoitza jasotzen duenean eta lana osorik jasotzen duenean, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK erabakiko du kontratistak egindako prestazioak kontratua betetzeko ezarritako baldintzekin bat ote datozen eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak eskaintzeko eta prestazioak jasotzean antzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko dio.

Enpresa kontratistari egotz dakizkiokeen akatsen ondorioz, lanak kontratatutako prestazioarekin bat ez badatoz, VICTORIA EUGENIAK horiek bazter ditzake eta ez du ordainketarik egin beharko edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea edukiko du.

Betiere, **24. klausulan** aurreikusitakoari kalterik egin gabe; edozein kasutan, VICTORIA EUGENIAK dagozkion zigorrak eskatu ahal izango ditu, baita kalte-galerak ordaintzea ere, kontratuaren xede den prestazioa egiteko atzerapenik izan bada edo gauzatze akastuna egin bada.

30. KONTRATUA DEUSEZTATZEA

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira SPKLTBaren 223. artikuluko a) -85. artikuluan xedatutakoa kaltetu gabe-, b), d), f), g) eta h) hizkietan adierazitakoak eta, oro har, kontratuzko edozein betebeharraren urratzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Klausula honetan kontratua deuseztatzeko aurreikusitako kasurik badago, automatikoki deuseztatuko da. Kasu horretan, VICTORIA EUGENIAK hartu duen erabakia jakinarazi behar dio kontratistari.

Jakinarazpena jaso eta gero, kontratistak VICTORIA EUGENIAREN esku utzi behar ditu kontratatu diren zerbitzuak egiteko unera arte landu dituen dokumentu guztiak, eta kontratua dela-eta sortutako gainerako dokumentazioa edo informazioa, VICTORIA EUGENIAK erabilitako eta kontratistari emandako agiriekin batera.

Ondorio horietarako, gauzatze-egoeraren akta idatziko da, VICTORIA EUGENIAREN ustez eginda dauden lanak eta egin gabe daudenak zehazteko. Hala, VICTORIA EUGENIAK kontratua gauzatzen jarraitu ahal izango du, bere kontu edo hirugarren baten bitartez.

Hori guztia kasuan kasu egingo den kontratuaren likidazio ekonomikoari kalterik egin gabe izango da, eta jarraian xedatutakoari jarraituz.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik edo legez egokiak diren arrazoiengatik kontratua bertan behera uztea eragiten duten erantzukizun ekonomikoak, edo legez dagozkionak, kontratua deuseztatzean eta dagokion dokumentazioa aurkeztean likidatuko dira. Horrek ez du eragotziko, ordea, VICTORIA EUGENIAK hura gauzatzen jarraitu ahal izatea.

Deuseztatze-kasuan, benetan egindako lanen prezioa jasotzeko eskubidea edukiko du kontratistak, hasiera batean.

Kontratistari egotz dakioken edozein arrazoiengatik deuseztatzen bada kontratua, kontratuaren urteko prezioaren % 20ri dagokion kopurua sortuko da VICTORIA EUGENIAREN alde, izaera metagarriarekin, kasuan-kasuan ordaindu beharreko kalte-galereaz gainera.

Bi kopuru horiek enpresa kontratistari ordainketa oso edo zatiko gisa ordaindu beharreko kopuruei kenduko zaizkie; baina, ezinezkoa bada, erreklamazioa aurkeztuko da.

31. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIOA

Prestaketari eta esleipenari dagokienez, kontratua honako hauek arautuko dute: ekonomia- eta administrazio-klausulen agiriak, baldintza teknikoen agiriak eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, VICTORIA EUGENIAREN kontratatzeke barne-instrukzioek eta SPKLTBn horri buruz ezarritako arauak. Horrela egingo da esleitzeko boterea duten eta herri-administrazioak ez diren sektore publikoko erakundeek araupetze harmonizatutik kanpo egindako kontratuekin.

Kontratuaren eraginei eta iraungitzeari dagokienez, ekonomia- eta administrazio-klausulen agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian adierazitakoaren arabera arautuko da kontratua eta, zuzenbide pribatuko arauak jarraituko zaie haietan aurreikusten ez den edozertarako. Hala ere, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren I. Liburuko V. tituluaren kontratuak aldatzeko ezarritako arauak kontratuari aplikatuko zaizkio.

Gainera, SPKLTBa, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua (Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena) eta

1098/2001 Errege Dekretua aplikatzekoak izango dira agiriekin testu arauemaile horietara espresuki jotzen duten guztirako.

Ordena jurisdikzional zibilak izango du kontratua prestatu, esleitu, ondorioak eragin, bete eta iraungiarazteari dagokionez aldean artean sortzen diren gorabeherak ebazteko eskumena.

Kontratuarekin lotuta gai eztabaidagarria sortzen bada, aldeek Donostiako jurisdikzioko Epaitegiek eta Auzitegiek diotena beteko dute.

Donostian, 2016ko ekainaren 14ean.



Jaime Otamendi Muñagorri
Kudeatzailea